

Bixente Serrano Izko

GEROA BAIKO DIPUTATUA ♦



DANI BLANCO

Herri botoak eta gero hau!

SANFERMINETAKO bezperaren bezperan nago, desberdinak izanen direlakoan aurtengoak. Aspaldiko ene ohituran jarraituko dut halere: Iruñetik kanpo bizi izanen ditut, nahiz eta ohiko arrazoiengatik ez izan. Opor egun lasaigoak pasatzera ihes egin ohi diet sanferminei aspalditik, lan beharrak behartuko nau aurten Iruñetik aldentzera.

Baina sanferminak beraiek desberdin hastear daude, zorionez. Guztiz desberdin ez, alta. Ez behintzat nik neuk nahi bezain desberdin. Alkatearen agerpen instituzionala prozesioan, adibidez. Zezenketetan, udal lehendakari-tza, adibidez. Desilusionatu agertu zitzaidan atzo ene betiko lagun bat prozesioaren kontuan. Zezenketei buruz hitzik ez egin arren, seguru nago gai horren inguru ere berdin uste duela. Erakundeetatik egin beharreko lan pedagogikoa aipatu zidan. Aldakuntzak, bai, sakon eta sendo izan behar duela, eta horretarako urrats neurtuetan ibili behar, baina populismo mota batzuei, klerikalismoari adibidez, men egin gabe, teorien behintzat konstituzional den laikotasunaren (erlijio eta estatu arteko bereizketaren) joko-zelaian arituz. Ados ni, pedagogia lanbide izan dudaren aldetik, ene lagunak oraindik ere duen bezala, baina baliabide eta agertoki desberdinetan ibiliak

biok: ertaineko irakaskuntza publikoan ni, adin eta mota guztietako irakurleei begira argitaratze lanean dabil laguna.

Zaila bada pedagogia kontua eskolan, are zailagoa kalea, hiria bera denean eskola, adin eta tradizio eta formakuntza eta aurreiritzi eta mito eta gustu eta interes guztietakoek osaturiko gizarte oso bati begira jarduteko orduan. Ikasgelan, ezin irakatsi nahi genituzkeen ikasgai guztiak lehen egunean. Pedagogia prozesu bat da, luzea, neurtua, lehentasunak eta urrats bakoitza nola edo hala planteatu beharrekoa. Eskolan. Are gehiago katean, hain zuzen ere umeak ez direlako herritarrek.

Aspaldi ezagutzen dut gure alkate berria, hainbat jardunetan kide izan gara, elkarrekiko estimukoak. Ez nion botoa eman, baina pozak bete

ninduen Joseba Asiron zerrendaburu agertzen ikustean, agertze horrek berak ene ildoko ez ziren hautagaitzetan ere zerbait aldatzen ari zela adierazten zuelako. Eta poztu nau, ene kutuneko hautagaia haren atzetik gelditu denez, Asiron alkate ikusteak. Ene konfiantza osokoa dut, II. Errepublikatik hona Iruñeko alkaterik onena izanen delakoan. Prozesio eta zezenketa kontuen despit (oi Hemingwayk egin zigun!). Pedagogia sendoak urrats txikiak eskatu. ■

*Ez nion botoa eman,
baina pozak bete
ninduen*

*Joseba Asiron
zerrendaburu
agertzen ikustean*

ninduen Joseba Asiron zerrendaburu agertzen ikustean, agertze horrek berak ene ildoko ez ziren hautagaitzetan ere zerbait aldatzen ari zela adierazten zuelako. Eta poztu nau, ene kutuneko hautagaia haren atzetik gelditu denez, Asiron alkate ikusteak. Ene konfiantza osokoa dut, II. Errepublikatik hona Iruñeko alkaterik onena izanen delakoan. Prozesio eta zezenketa kontuen despit (oi Hemingwayk egin zigun!). Pedagogia sendoak urrats txikiak eskatu. ■

DANI BLANCO



**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Aski malko

IRAGAN EGUNEAN, aldizkari honetan, Antza eta Iparragirre ETA kideekiko elkarrizketa irakurtzean ideia batek inarrosi zidan gogo: kondenaren ildotik, euskal presoek, kartzelara iristean, zaindarien Dostoievskiren *Krimena eta zigorra* eleberria oparitu beharko liekete. Atxiloek, herriaren askatasunaren fagoretan kunplitu krimen funtsa eta hauen larritasunaren araberrako gatziguaren onartzea zein premiazkoa den ikasiko lukete hor. Paperean hargatik, bi buruzagiak irrealitate malenkoniatsu betean igeri dabiltzala iruditut zitzaidan, inguruan ezer aldatu ez bailitzan.

Bizkarra emateak, damutzeak, salatzeak eta menturaz aurkarien artean gatazkak kaltetuak –eufemismoaren tapakia– aurkitzen direla ohartzeak lagunduko lituzke borrokaren mundu morbidotik beste mundu humanoago, inperfektuago, errealago batera pasatzen.

Ordez, mila bider harilkatu diskurtsoak botatzen dizkigute: biktimak beraiek dira eta etsaiak oraindik ere Frantzia eta Espainia entzun gogor ziztrinak, non ez diren presoek eta errefuxiatuen gaia ahanztear dauden euskaldun arruntak. Nostalgia negartiaren garaia bukatu da.

Horrela da Raskolnikov erraldoia... ■